

PROIEKTU ARTISTIKOAK 1 3
PROYECTOS ARTÍSTICOS

LATITUD

Exposición Fotográfica


Ivan Urarte

Inauguración: 17 octubre, 20:00
Fechas Exposición: 17 octubre a 17 noviembre 2013

CONTACTO PRENSA
+34 945 161 830
e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

Montehermoso presenta los proyectos seleccionados en la convocatoria Proyectos Artísticos 2013. El objetivo de esta convocatoria es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales. Los proyectos seleccionados, cinco trabajos específicos desarrollados a lo largo de los últimos meses para su presentación en las salas del centro, ofrecen una visión diversificada de las prácticas artísticas en Vitoria-Gasteiz.

“LATITUD”, Exposición Fotográfica Ivan Urarte



17 de octubre al 17 de noviembre de 2013. Sala Jovellanos

Bajo el título “Latitud”, Ivan Urarte nos invita a reflexionar sobre el autoconocimiento y la manera en la que establecemos relaciones con nuestro entorno. Una propuesta de búsqueda a través del proceso creativo, trabajando con la hipótesis de producir y reproducir una expansión del medio, construida en torno a la sedimentación fotográfica, el feedback resultante de experiencias interpersonales y la propia disposición espacial del material fotográfico concebido.

La fotografía es el eje central de esta exhibición, a la que se unen iluminación, una pieza de audio y un mural, elementos que a su vez, enriquecen e insuflan vida al imaginario evocado en sus imágenes. La exposición se transforma así en una instalación, amplificando sensorialmente su significado original. Estamos ante una experiencia audiovisual que nos desplaza por rincones misteriosos en los que la intriga, lo fantástico y lo poético nos trasladan a otra dimensión. Las imágenes se presentan como un recorrido desde lo real a lo imaginario, y viceversa. Nos arrastran hacia una ensoñación, a un viaje a lo desconocido, a escenarios inventados pero extrañamente reales.

En una sociedad sobreinformada y sobrestimulada el proceso de búsqueda personal y de autoafirmación adquiere categoría de fundamental. Encontrar nuestro lugar en el mundo y analizar nuestra relación con objetos, lugares, personas y emociones, nos sitúa en una cruzada épica y vital. El artista utiliza el concepto de latitud como metáfora de la localización de la propia geografía del individuo en diferentes etapas y contextos de vida. Nos alienta a trascender, explorar y conocer nuestras coordenadas en un entorno onírico en el que nos apropiamos de la realidad a través de nuestra vivencia subjetiva. En "Latitud" el espectador se enfrenta a una incomodidad visual captada por el sueño, el símbolo y la imaginación.

"Ivan dibuja el mundo con líneas de sombra y luz; sueña cielos de blancura y laberintos en los que la memoria pierde la precisión del recuerdo y se reinventa en la forma de un pájaro en vuelo o el horizonte evanescente de un camino. Con la sensibilidad de estas fotografías, el autor alumbra nuestra realidad con la llama del verdadero poeta y nos enseña a mirar la vida con atención y aliento renovados". Ricky Dávila

Artistas colaboradores:

DORLETA MARTÍNEZ DE ARAMAIONA (texto)
MARIO CASTILLO (pieza de audio)
FERMIN MORENO (instalación del mural)
ENARA ARANBIDE (Iluminación)

VISITAS GUIADAS

Recorrido por la exposición junto al artista, que proporcionará las claves necesarias para la aproximación al conjunto de la obra.

Sábado 19 de octubre 12:00 hrs.

Sábado 16 de noviembre 12:00 hrs.

Gratuita. Duración: 1 hora

TRAYECTORIA

Ivan Urarte se encuentra con la fotografía en el año 2003 en la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz, con el curso de Fotografía Creativa impartido por Koldo Mendaza. A partir de este momento la relación con este medio de expresión le ha acompañado constantemente. En 2005 se traslada a Barcelona donde termina su licenciatura de Económicas y donde realiza un curso anual de especialización de foto-reportaje en la escuela IDEP.

En 2007 gana el segundo premio de Periscopio por su serie "Otros Lugares". En el 2010 forma parte junto al colectivo SCHI-PHI para la exposición "DOMESTIC" en el *Espai Cultural Caja Madrid* en Barcelona. Decidido a explorar otros entornos y oportunidades, en 2011 se muda a Los Ángeles (EE.UU), donde trabaja como *still photographer* (foto fija) y asistente de arte dentro de la industria del cine. Cubrirá además diferentes festivales de cine para la plataforma web Filmin. Instalado de nuevo en Vitoria-Gasteiz, realiza el curso de "Creación de un proyecto personal" impartido por el fotógrafo Ricky Dávila en la Escuela de Fotografía Contemporánea de Bilbao. Es entonces cuando "Latitud" empieza a coger forma y cuerpo como trabajo fotográfico.

En 2013 gana la ayuda a la Creación de Proyectos Artísticos concedida por el Centro Cultural Montehermoso y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la producción del trabajo "Latitud" y su correspondiente exposición en el centro. Actualmente sigue trabajando y proyectando nuevos universos fotográficos y realiza labor divulgativa formando parte de la plantilla de profesores de la Escuela de Fotografía Contemporánea CFC de Bilbao.

Desde sus inicios como fotógrafo y en su afán por seguir creciendo como artista, asiste regularmente a *workshops* con diferentes creadores nacionales e internacionales, destacando los realizados este último año con el Premio Nacional de Fotografía, Alberto-García Alix y la editora del *Sunday Times Magazine*, Mónica Allende.

PROIEKTU ARTISTIKOAK 13
PROYECTOS ARTÍSTICOS

LATITUD

Argazki Erakusketa

Ivan Urarte

Inaugurazioa: urriak 17, 20:00
2013ko urriaren 17tik azaroaren 17ra

PRENTSA KONTAKTUA

+34 945 161 830

e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

2013ko proiektu artistikoen deialdian hautatutako proiektuak aurkezten ditu Montehermoso Kulturuneak. Deialdiak bertako artisten lanak erakustea du xede. Aukeratutako proiektuak Montehermosoko geletan erakusteko azken hilabeteetan prestatutako bost proiektu dira, eta Gasteizen egiten diren praktika artistikoen ikuspegi anitza eskaintzen digute.

“LATITUD”, Argazki Erakusketa Ivan Urarte



2013ko urriaren 17tik azaroaren 17ra. Jovellanos Aretoa

“Latitud” lanarekin, Ivan Urartek autoezagutzaz eta gure ingurunearekin erlazionatzeko moduz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Sorkuntza prozesuaren bitartez bilatzeko proposamena da; lanerako hipotesia da bitartekoaren zabalkuntza sortu eta erreproduzitzea, argazkien sedimentazioaz, pertsonen arteko esperientzien *feedback*az eta argazki materialak horman duen kokapenez ere baliatuz.

Argazkiak dira erakusketaren ardatz nagusia, eta horiekin batera argiztapena, audio pieza bat eta horma-irudi bat erabiltzen dira, irudietan iradokitakoa aberastu eta bizitzaz betetzeko. Hartara, erakusketa instalazio bihurtzen da, hasierako esanahia zentzumenen bidez hedatuz. Ikus-entzunezko esperientzia da, leku misterioetsuetara eramango gaituena, intrigak, fantasiak eta poesiak beste dimentsio batean barneratuko baikaituzte. Irudiek bide bat jorratzen dute errealitatetik irudimenera, eta alderantziz. Amets-giro batera, ezezagunera, agertoki asmatu baina harrigarriro errealetara eramango gaituzte.

Informazioz eta estimuluz gainezka dagoen gizarte honetan, bilaketa pertsonaleko eta autoafirmazioko prozesua funtsezkoa bilakatu da. Munduan gure lekua aurkitzea eta gauza, leku, pertsona eta emozioekin dugun erlazioa aztertzea hil ala biziko gurutzada epikoa da. Artistak latitute kontzeptua metafora gisa baliatzen du, banakoaren geografia bizitzako etapa eta testuinguru ezberdinetan kokatuz. Gure koordenatuak ametsetako ingurune batean ezagutu, arakatu eta gainditzera akuilatzen gaitu, gure bizipen subjektiboaren bitartez errealitateaz jabetzera. "Latitud" erakusketan, ikusleak ikusizko ezerosotasunari egin beharko dio aurre, ametsek, sinboloek eta irudimenak sortutakoari.

"Ivanek itzal eta argi lerroz marrazten du mundua; zuritasunez betetako zeruak amesten ditu, eta labirintoak, non memoriak oroitzapenen zehaztasuna galtzen baitu, eta berrasmatzen, hegan ari den txori baten itxurapean edo bide baten horizonte lausoan. Argazki sentibera horiekin, egileak gure errealitatea argitzen du, benetako poetaren sugarrarekin, eta bizitzari arreta eta kemen berrituz begiratzen irakasten digu". Ricky Dávila

Artista laguntzaileak:

DORLETA MARTÍNEZ DE ARAMAIONA (testua)
MARIO CASTILLO (Audio-pieza)
FERMIN MORENO (Horma-irudiaren instalazioa)
ENARA ARANBIDE (Argiztapena)

BISITA GIDATUAK

Erakusketan zehar, artistaren eskutik egiten den ibilbidea. Bertan lanetara gerturatzeko beharrezkoak diren gakoak eskainiko dira.

Urriaren 19a, larunbata, 12:00etan.
Azaroaren 16a, larunbata, 12:00etan.
Doan. Iraupena: 60´

IBILBIDEA

Ivan Urartek 2003an egin zuen topo argazkigintzarekin, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan, Koldo Mendazak argazkigintza sortzaileari buruz eman zuen ikastaroan. Harrezkero etengabe egon da harremanetan adierazpide horrekin. 2005ean Bartzelonara joan zen, Ekonomia Zientzien lizentzia bukatzera, eta IDEP eskolan urtebeteko ikastaroa egin zuen argazki-erreportajearen espezializatzeko.

2007an bigarren saria irabazi zuen Periscopio jaialdian, "Beste leku batzuk" seriearekin. 2010ean, Bartzelonako *Espai Cultural Caja Madrid* aretoan antolatutako "DOMESTIC" erakusketan parte hartu zuen, SCHI-PHI taldearekin batera. Beste inguru eta aukera batzuk ezagutu nahirik, 2011n Los Angelesera (AEB) abiatu zen, eta bertan *still photographer* (argazkigintza finkoan) aritu zen, bai eta arte laguntzaile ere, zinema industrian. Gainera, zenbait zinema-jaialdiren jarraipena egin zuen Filmin web-plataformarako.

Gasteizera itzuli eta Ricky Dávalak Bilboko Argazkigintza Garaikideko Eskolan emandako "Proiektu pertsonal bat sortzea" ikastaroa egin zuen. Orduantxe hasi zen "Latitud" argazkigintza lana mamitzen. 2013an, Montehermoso kulturuneak eta Gasteizko Udalak proiektu artistikoak sortzeko ematen dituzten laguntzetako bat irabazi zuen, "Latitud" lana ekoitzi eta kulturunean erakusteko. Une honetan argazki unibertso berriak lantzen jarraitzen du, eta aldi berean, Bilboko CFC Argazkigintza Garaikideko Eskolako irakaslea da.

Argazkigintzan hasi zenetik, eta artista gisa hazten jarraitzeko asmoz, estatuko zein nazioarteko sortzaileek ematen dituzten lantegietan hartzen du parte aldian behin; aipagarrienak Argazkigintza Sari Nazionalaren irabazle Alberto García-Alixekin eta *Sunday Times Magazine*ko editore Monica Allenderekina aurten egindakoak dira.